





Gehiago eta zaharragoak

Josune Martínez de Albeniz

Donostiako biztanleriaren piramidea, adina eta sexuaren arabera (1991)



(2001)



Donostia handitzen eta zahartzen ari da. Hori dio, behintzat, Udaleko Ongizate Sailak berriki kaleratutako txostenak. Txostenaren arabera, 182.442 lagun bizi gara Donostian eta populazioa nabarmen zahartzen ari da.

Bixen Merino

Donostiako biztanleriak 1991tik 2001era bitartean izandako bilakera eta hiriko errealitate sozialari buruzko oinarriko datuak jakinarazi ditu Ongizate Sailak. Ikerketa honen helburua argia da: "Donostian biztanleriarekin, etorkinekin, zaharrek, langabeziarekin ... zer gertatzen den jakin behar dugu eta era berean, aurreikuspenak egiten saiatu", adierazi digu Ongizate Saileko zuzen-

Gipuzkoarren %27 Donostian bizi da

dari tekniko eta soziologo Mikel Esnalek. Hala, zortzi arlotan banatu dute txostena: biztanleria, elbarritasunak, inmigrazioa, enplegua, errenta, elkarteak, ekipamenduak eta gizarte zerbitzuguneen oinarriko datuak.

Biztanleriari dagokionez, 2001ean 182.442 lagun bizi ziren Donostian; 1991n baino 11.003 gehiago. Hau da, gaur egun, Gipuzkoa osoko biztanleen %27 inguru Donostian bizi da. Datu hauek aipagarriak dira. Izan ere, 90eko hamarkadan, biztanleriak nabarmen egin du gora gure hirian (%6,4). Kontuan hartu behar da, gainera, Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleriak behera egin duela aldi horretan. Iñaki lurrebaso Azpiker soziologia ikerguneko teknikari igeldotarrak eta "Euskal Herria datuen talaia" liburua-aren egileak dioenez, "XIX. eta XX. mende-*etan, Euskal Herriaren bilakaera ekonomikoaren ondorioz, biztanleria hazi egin zen. Ildo honetatik, Bizkaiko biztanleria sei aldiz biderkatu zen eta Gipuzkoakoa, lau aldiz. Hala ere, azken hogeitau urteotako krisi ekonomikoaren eraginez, Gipuzkoak eta Bizkaiak biztanleria galdu dute eta galtzen jarraitzen dute". Beraz, Donostiako gorakada salbuespena da. lurrebasoren ustez, hazkunde hori azaltzeko, bi faktore nabarmendu behar dira: "Batetik, biztanleriak kostalderantz joateko duen joera eta bestetik, zerbitzu esparruaren inguruko ekonomiak Donostian duen indarra. Horrez gain, azken urteotan egindako etxeak kontutan izanda, pentsatzekoa da kanpoko jendea Donostiara etorri dela bi-*

65 urtetik gorakoen banaketa auzoka

	Kop.	%
Erdialdea	3.856	27,5
Parte Zaharra	1.732	27,2
Mirakontxa	470	14,3
Amara Zaharra	834	23,6
Amara Berri	5.626	21,9
Martutene	488	18
Loiola-Zorroaga	1.341	21,3
Altza	2.768	13,7
Herrera	402	23,6
Bidebieta	1.497	20,1
Gros	5.078	25
Ulía	1.059	23,3
Aiete	730	8,1
Antigua	2.925	17,6
Ibaeta	590	10,8
Igeldo	158	16
Anorga	577	13,7
Intxaurrondo	2.164	12,8
Egia	3.222	24,6
Guztira	35.517	19,5

18 urtetik beherakoen banaketa auzoka

	Kop.	%
Erdialdea	1.751	12,5
Parte Zaharra	695	10,9
Mirakontxa	597	18,1
Amara Zaharra	497	14,1
Amara Berri	3.826	14,9
Martutene	422	15,6
Loiola-Zorroaga	924	14,7
Altza	3.174	15,7
Herrera	219	12,8
Bidebieta	1.011	13,6
Gros	2.746	13,5
Ulía	642	14,1
Aiete	2.009	22,2
Antigua	2.699	16,2
Ibaeta	1.220	22,4
Igeldo	165	16,8
Anorga	835	19,9
Intxaurrondo	3.403	20,2
Egia	1.637	12,5
Guztira	28.472	15,6

zitza". Beste faktore bat ere kontuan hartu behar dela dio igeldotarrak: gaur egun bizi itxaropena handiago da.

Zaharragoak

Ongizate Sailak plazaratutako txostenaren beste ondorio nagusia honakoa da: Donostia zahartzen ari da. 1991n, 65 urtetik gorako 26.009 lagun bizi ziren gure hi-

ENPLEGU Bulegoa



Langabeziaren banaketa, sexua eta adin-taldearen arabera

	<25 urte		25-34		35-44 urte		>44 urte		Guztira	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
Emakum.	270	7,9	931	27,3	871	25,5	1.341	39,3	3.413	100
Gizonez.	141	5,9	683	28,8	559	23,55	992	41,8	2.375	100
Guztira	411	7,1	1.614	27,9	1.430	24,7	2.423	41,9	5.788	100

rian (populazioaren %15,1). Hamar urte beranduago, 65tik gorakoak 35.517 dira, hau da, biztanleen %19,5.


Bizi itxaropena handiagoa izateak, noski, eragina du populazioaren zahartze honetan. Baina, baita jaiotze tasak nabarmen behera egin izanak ere. Iñaki Lurrebasok dioenez, jaiotzak gutxitu izana ulertzeko, "aintzat hartu behar da 1975etik hona izandako krisialdi ekonomikoa. Krisiaren ondorioz, gazteek bitar-

teko gutxiago dituzte gurasoen etxetik alde egiteko eta familia osatzeko. Bikoteak beranduago elkartzen dira eta beraz, ugalketa garaia atzeratu egiten da". Ildo beretik, beste faktore batzuk aipatu dizkigu Azpiker ikerguneko soziologoak: "Haurrak izatea gero eta garestiagoa da eta honi emakumeak lan munduan sartzea gehitzen badiogu, errazago uler daiteke jaiotze tasaren jaitsiera. Bestalde, arrazoi kulturalak ere kontuan hartu behar dira. Antisorgailuen hedapenak, erlijio katolikoaren eragin txikiagoak eta familiaren kontzeptu berriak -non gehienez hiru seme-alaba izaten diren- eragina du jaiotze tasa txikian". Donostiako populazioaren zahartzea hobeto ulertzeko, hona hemen beste datu bat: 1991n 18 urte artekoak 41.071 lagun ziren (biztanleen %23,9); 2001ean, berriz, 28.472, (%15,6).

Aipagarria da, bestalde, zaharren artean, emakumeak direla nagusi. Gazteen artean emakume eta gizon kopuruak paretsuak dira, baina 65 urtetik aurrera, emakumeak askoz gehiago dira: %62,4.



Izan ere, "emakumeen bizi itxaropena handiagoa da", esan digu Mikel Esnal Ongizate Saileko zuzendari teknikoak.



Ongizate Sailaren txostenaren arabera, 2001ean, Hego Euskal Herritik eta Espainiatik kanpoko 3.998 lagun zeuden Donostian erroldatuta. Kanpotar hauen jaioterriari erreparatuta, %40,7 Hego Amerikakoa eta Ertamerikakoa zen, %38 Europako Batasunekoak, %7,7 Afrikakoa, %5,9 Europako ekialdekoa, %4,9 Asiakoa eta %2,5 Ipar Amerikakoa.

Donostiako Caritas erakundeko Etorriaren Arloko arduradun Maite Etxabek dioenez, "azken bizpahiru urteetan Hego Amerikatik jende gehiago etorri da. Lehen, etorkin gehienak afrikarrak ziren, baina gaur egun, gehienak Hego Amerikatik eta Magrebetik etortzen dira". Amerikarrei dagokienez, 525 ekuadortarrek ziren, 461 kolonbiarrek, 186 kubatarrek eta 182 argentinarrak.

Ekialdeko Europatik etorritakoek ere gora egin dute: "Espainiako Gobernuaren interesarengatik edo auskalo zergatik, azken boladan Europako Ekialdetik etorkin gehiago datoz. Etorkin hauetako asko Espainiako hegoaldera doaz eta ondorioz,

magrebiarrak lanik gabe geratu dira. Horregatik, magrebiar batzuk hona etortzen hasi dira", dio Etxabek. 2001ean, 215 magrebiar zeuden erroldatuta.


Jaioterria kontuan hartuta, sexuari dagokionez, bada ezberdintasunik etorkin taldeen artean. Esaterako, Ertamerikako eta Hego Amerikako gehienak emakumezkoak dira (%64,2). "Emakume ho-

riek neskame moduan lan egiten dute", dio Etxabek, eta horixe da, hain zuzen, lurralde horietako artean, emakumeak nagusi izatearen arrazoia. Afrikako etorkinen artean, aldiz, askoz gutxiago dira emakumeak (%26,7).

Hala ere, kontuan izan behar da etorkin asko erroldatu gabe daudela eta beraz, ez direla datuotan ageri.

Gero eta etorkin gehiago

Donostian urtero erroldatutako etorkinak



Oinarrizko aldikako laguntzen onuradunak

	Kop.	%	(*) Guztira laguntzak jasotzen dituzten pertsonak 2.612 dira, batzuek bi laguntza jasotzen baitituzte.
Kotizatu Gabekoen Pentsioa	923	33,9	
Gizarte Ongizateko Fondo	166	6,1	
LISMI (Elbarritasuna)	80	2,9	
Oinarrizko Errenta	1.157	42,5	
Gizarte Larrialdietako Laguntza	399	14,6	
Guztira	2.725(*)	%100,0	

Laguntzen onuradunak sexuaren eta adinaren arabera

Adina	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	%
<25	43	51	94	3,6
25-45	310	554	864	33,1
45-65	272	412	684	26,2
>65	153	817	970	37,1
Guztira	778	1.834	2.612	
%	%29,7	%70,2		%100

Datu hauek ikusita, txostenaren egileen ustez, Donostia are gehiago zahartuko da hurrengo hamarkadan. Hala, 2010. urtean, Donostiak 65 urtetik gorako 41.257 biztanle izatea espero da. Horregatik, Ongizate Sailean gogoeta egin beharra dagoela diote. "Erakunde guztiak aurreikusi behar dute biztanleok zein behar izango dituzten, kualitatiboki eta kuantitatiboki; hau da, aurreikusi behar da zein zerbitzu mota eskaini beharko diren eta zerbitzu horiek nortzuek eskatuko dituzten", dio Mikel Esnalek.

Donostian 24 zahar etxe daude eta horietako bat Alde Zaharreko Kai Alde da. Jose Mari Lizaso da bertako presidentea eta zaharrek egun dituzten arazoetako

bat aipatu digu: "Zaharrentzako egoitza publikoetan ez da nahikoa tokirik izaten eta pribatuak garestiak dira. Beraz, askotan, zaharrek etxean bertan geratzen dira, kalera atera gabe, nora joan ez dakitelako". Ez dago dudarik, txostenaren datuak ikusita, arazo hau etorkizunean areagotu egingo dela eta Donostiak prest

Pobreziaren erradiografia

Diru sarrera txikia duten donostiarrak ere aztertu ditu Ongizate Sailak. Horretarako, dirulaguntzak jasotzen dituztenak kontuan hartu ditu. Dena dela, Ongizate Sailak adierazi duenez, diru sarrera txikia dutenak gehiago dira gure hirian. Izan ere, herritar batzuek, objektiboki premia duten arren, ez dute dirulaguntzarik jasotzen. Bi izan daitezke gabezia honen arrazoiak: batetik, diru laguntzen berri ez izatea, eta bestetik, nahiz eta premia izan, laguntzak jasotzeko baldintzetakoren bat ez betetzea.

Txostenean bildutako datuen arabera, 2001ean, Donostiako 2.612 familiek jasotzen zuten dirulaguntza hauetakoren bat (oinarrizko errenta, kotizatu gabekoen pentsioa, gizarte larrialdietako laguntza...). Dirulaguntz onuradun gehienak (%53) bakarrik bizi ziren, baina aipagarria da lau kidek edo gehiagok osatutako 123 familia laguntza hauei esker bizi zirela duela bi urte. Txostenaren arabera, laguntza hauek, guztira, 3.894 donostiarrengana heltzen dira.

egon beharko duela konponbideak bilatzeko. Erakundeek, beraz, badute zer eginik.

Josune Martinez de Albeniz



Mikel Esnal:
«Erakundeek zaharren beharrak aurreikusi behar dituzte»